



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**

**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**

**Horror and Fantasy  
Film Festival**

# **Creators of Legends HR Giger-i omenaldia**

**Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa  
(San Jeronimo)**

urria 26 – azaroa 10

Komisarioak: **Carlos Arenas, César Oropeza**

HR Giger artista suitzarrak goitik behera aldatu zuen bere diseinuekin zientzia fikzioaren eta beldurrezko zinemaren *looka*, **Alien** (1979) pelikulan izan zuen kolaborazioan. Gainera, Donostiako Kubo-Kutxa aretoak 2009an eskaini zion atzera begirako handi hartan ikusi ahal izan zenez, **Alien** baino askoz ere zabalagoa da bere lana, arlo desberdinak biltzen baititu: pintura, eskultura, marrazkia, eta altzarien eta arkitekturen diseinua. Gigerrek sormenezko unibertso ikusgarri bat garatu zuen, munstro biomekanikoez, jainkosa satanikoez eta paisaia gotikoez jositako imajinario baten bitartez, eta zalantzarik gabe izugarritzko eragina izan dute latitude guztietako artista berrien artean.

**Creators of Legends – HR Giger-i omenaldia** talde-erakusketak hainbat herrialdetako artistak biltzen ditu –Mexiko, Estatu Batuak, Australia, Espainia, Frantzia, Polonia eta Alemania–. Haiek HR Gigerren obran inspiratuta garatzen dituzte beren sorkuntzak pinturaren, eskulturaren, marrazkiaren eta argazkilaritzaren arloetan.

Nazioarteko erakusketa bat da, ibiltaria, eta lehen aldiz bisitatuko du Espainia, Mexikoko, Suitzako eta Alemaniako hainbat hiritan egon ondoren. 2019an, hain zuzen, **Alienen** 40. urteurrena dela eta, instalazio artistiko bat gehitu zaio, *Orioneko Bestiariora* izenekoa; **Alien: Covenant** (2017) filmeko pertsonaia nagusitako bat den David androidearen laborategian dago inspiratua, eta bertan espazio aztoragarri bat birsortuko da, fikzioa, zientzia eta artea elkartuko dituen.



**Fantasiatzko eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**

# **Creators of Legends**

## **Homenaje a HR Giger**

**Sala de Actividades de la Biblioteca Municipal  
(San Jerónimo)**

26 octubre – 10 noviembre

Comisarios: **Carlos Arenas, César Oropeza**

El artista suizo HR Giger revolucionó con sus diseños el *look* de la ciencia ficción y del cine de terror con su colaboración en la película **Alien, el octavo pasajero** (1979). Además, como se pudo comprobar con la amplia retrospectiva que le dedicó la Sala Kubo-Kutxa en San Sebastián en 2009, su trabajo es mucho más que **Alien**, abarcando diversas disciplinas como la pintura, la escultura, el dibujo o el diseño de muebles y arquitecturas. Giger desarrolló un impactante universo creativo mediante un imaginario plagado de monstruos biomecánicos, diosas satánicas y pasajes góticos que sin duda ha ejercido una gran influencia entre artistas emergentes de todas las latitudes.

La exposición colectiva **Creators of Legends – Homenaje a HR Giger** reúne a artistas de México, Estados Unidos, Australia, España, Francia, Polonia y Alemania que, inspirados por la obra de HR Giger, desarrollan sus propias creaciones en el campo de la pintura, la escultura, el dibujo o la fotografía.

Esta exposición internacional de carácter itinerante visita por primera vez España tras viajar por diversas ciudades de México, Suiza y Alemania. Precisamente en 2019, con la celebración del 40º aniversario de **Alien**, se integra una instalación artística titulada *Bestiario de Orión*, inspirada en el laboratorio del androide David, uno de los personajes principales del film **Alien: Covenant** (2017), en el que se recreará un espacio que fusiona ficción, ciencia y arte de una manera perturbadora.